

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



MUSIKA ESKOLA Ate irekiak, larunbatean

Instrumentuak probatzeko aukera izango dute haurrek, 10:30etan hasita.

ATE irekien saioa antolatu du Norberto Almandoz musika eskolak, larunbat honetarako. Goizeko 10:30etan hasiko da, eta herriko haurrei dago zuzenduta, bereziki.

Aurrena, kontzertu bat eskainiko dute musika eskolako ikasleek; eta ondoren, irakasleek beraien instrumentuak erakutsiko dituzte. Horrela, haurrek aukera izango dute, nahi dituzten instrumentuak probatzeko, eta zalantzak argitzeko. ||

SAGARDOETXEA

'Udaberri giroan', sagarrondoak loratzen hasi direla ospatzeko

Familia guztiarentzako ekitaldia antolatu dute larunbatean, Sagardoetxeako sagastian: herriko antzezle, dantzari eta musikarien emanaldia, kontzertuak eta piknika, 17:00etan hasita.

UDABERRIAN sartzearekin batera, sagarrondoak loratzen eta sagastiak txuriz janzten hasi dira; eta hori, festarako arrazoi izaten da Sagardoetxean, urtero, «urte sasoi eder hau ospatzeko». Hori horrela, *Udaberri giroan* ekitaldia antolatu dute larunbat honetarako, Sagardoetxeako sagastian, familia guztiarentzat; eguraldi txarra egingo balu, ikastolako patioa mugituko lukete festa.

Urtero bezala, emanaldi berezi batekin ekingo diote, arratsaldeko 17:00etan, antzerkia, dantza eta musika uztartuz: *Ternuarako bidaia* antzezlan eskainiko dute, Astigarragako Antzerki Eskolako, Astigar dantza taldeko eta Norberto Almandoz musika eskolako ikasleek. 45 minutuko emanaldia izango da, eta kontatuko du, base-

rritar eta marinelen arteko istorioa; eta nola sagardoak berebiziko garrantzia izan zuen itsas bidaia horietan.

Emanaldia bukatzen denean, arratsaldeko 18:00ak aldera, gune ezberdinak prestatuko dituzte: *Kazkabarra* eta *Zazpi t'erdik* taldeen kontzertuak sagastian; loreekin egindako bitxigintza tailerra familientzat, Julia Telletxea eta Mari Jose Lizeagaren eskutik; edota sagastiko lanetan aritzeko aukera, belar-metak egiten, baratzean... Eta asmoa da, jendea batetik bestera mugitzea.

Eta ospakizuna bukatzeko, piknika egingo dute 19:00etatik 20:00etara, sagastian, norberak etxetik eramandakoarekin.

Jarduera guztiak doakoak izango dira, eta ez dago izena eman beharrik.



'Inaxiren istorioak' izeneko antzezlan eskaini zuten, joan den urtean.

Oka jokua, Museoen Nazioarteko Egunean

Beste zita bat ere prestatu du Sagardoetxeak, maiatzerako. Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko, familientzako jar-

duera berezia antolatu dute, maiatzaren 18an: Sagardoetxeako oka jokua, 17:00etatik 18:00etara. Aurrez erreserbatu behar da: info@sagardoarenlurraldea.eus edo 943 55 05 75. ||

GAZTE LOKALA MAIATZEKO EGITARAUA

Pareta margotzen hasi, eta zaldi gainean bukatu

Makina bat ekintza berezi prestatu dituzte, maiatzerako, Astigarragako Gazte Lokalean. Besteak beste, Cristina Eneara eta zaldian ibiltzera irteerak.

ITXITA egon zen atzo, maiatze-ko lehenengo egunean, Langileen Egunean, Astigarragako Gazte Lokala; eta beraz, gaur emango diote hasiera, ekintza bereziz bete datorren maiatze-ko egitarauari.

Eta aurreneko hiru zita bereziak, aste honetan izango dira. Ostiralean, Gazte Lokale-

ko pareta margotuko dute, arbela itxura emateko. Larunbatean, eskulanak egingo dituzte. Eta igandean, billar txapelketa jokatu dute.

'Chupa Chups'ak egiten

ikasteko aukera, hilaren 19an Datorren astean, berriz, bi zita gehiago: zinta gainean ibiliko

dira larunbatean, *slack line* eginez; eta Cristina Eneara parkera irteera egingo dute igandean, bertako animaliak ezagutzera.

Baina gehiago ere izango da maiatzean! Esaterako, *Chupa Chups*ak egiten ikasiko dute hilaren 19an; eta zaldi gainean ibiliz bukatuko dute hilabetea, maiatzaren 26an. ||

Maiatzak 4, Pareta margotu: arbela itxura eman.

Maiatzak 5, Eskulanak.

Maiatzak 6, Billar txapelketa.

Maiatzak 12, *Slack line*.

Maiatzak 13, Irteera Cristina Eneara.

Maiatzak 19, Sukaldaritza tailerra: *Chupa Chups*ak.

Maiatzak 20, Zineforuma.

Maiatzak 26, Zaldian ibiltzera.

Maiatzak 27, Eskulanak: mahaiaik sortu.

Maiatzak 7, 14, 21 eta 28, Ixita. **Gainerako egunetan**, Lagunki.

GURE ESKU DAGO

Giza Katerako, mahaia bihar

Giza Katea antolatu du Gure Esku Dagok, ekainaren 10erako, Donostia, Bilbo eta Gasteiz eskuz esku lotzeko. Astigarrarrei, egokitu zaie Usurbildik Aginagarako bidean 1,5 kilometroko zatia osatzea, eta parte hartzeko, izenematea zabalik dago: ostegunetan (18:00-20:00) eta igandean (12:00-14:00) jarriko dute mahaia, Joseba Barandiaran plazan edo Kontxa Etxeberria plazan, astez aste txandakatuz. 5 euro dira, eta autobusa ere jarriko dute, bertara joateko, 7 euroan. ||

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, **Kronikalari gehiago behar dira.**

Memoria gorde, oraina bizi, etorkizuna eraiki, izan Kronikalari!

Abantailak

1. Errenta aitortzearen dedukzioa.
2. Deskontuak aurrez zehaztutako eutzi dietan.
3. Zozketak aurrerantzean Kronikalanen artean.

Urtean **25 €**

sulabe

Valella okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

K ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatza@abema.com